

# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko uztailek 4 • 102.zka. •



X. Margo lehiaketa domekan

Mikel Egizabal

Uztaileko futbitoa

M<sup>a</sup> Asun, Komadrona, jubilatuta egiten da



# Segurtasuna inoiz ez da hain bizigarria izan.

Ondo pasatzeko lehen baldintza ardurak eta arriskuak alde batera uztea da.

Badakizu, guztiz ondo

pasatzeko dena kontrolatu

behar duzula. Orain, zure

bidea markatzea inoiz baino

bizigarriagoa da. Hemen dituzu Renault Mégane berriak,

behar zorrotzenak asetzeko ekipatutako kotxeak: Elipsean

oinarritutako diseinutik, Renault-en eskusiba diren

segurtasun gerrikorako programaturiko sujekzio sistema

berrikuntzaraino, edo serieko airbag-a bertsio guztietan.

Gidatzeko orduan, konfiantza,

oinarritzekoena dela pentsatzen

baduzu, Renault-eko Mégane

eta Mégane Coupé berriekin


aukera ona duzu. Lau

suspentsio independentezko sistemekin ekipatua, bere

kategoriako kotxerik egonkorrenak dira. Renault-eko


Mégane eta Mégane Coupé kotxe berriak. Zure bidea

markatzea bizigarria da. Mégane-a gidatzea segurua da.



## Mégane


RENAULT  
BERRIAK



RENAULT  
BIZITZEKO  
PLAZERRA

# 1133A





## San Ferminetara joateko asmorik baduzu?

*Josu Elexpuru*  
(Langilea)

*Iaz ez nintzen joan eta aurten ziurrenik joango naiz. Askotan joan naiz San Ferminetara, gehienetan astean zehar.*



*Aurora Errasti*  
(Langilea)

*Ez naiz sekula San Ferminetan egon eta aurten ere ez daukat joateko asmorik. Entzierroak ikusten ditut telebistaz, gustatzen zait.*



*Marilu Heriz*  
(Langilea)

*Aurten ez naiz joango baina iaz egon ginen. Gauez joan eta hurrengo eguerdian etorri ginen eta oso ondo pasatu genuen, berriro ere joateko moduan.*




*Jesus Oñinaga*  
(Langilea)

*Ez daukat asmorik. Ez naiz sekula egon, ez daukat ohiturarik. Herritik gutxi irtetzen dut. Zezenen adarretan ibiltzea ez zait gustatzen.*



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultur sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



### ESKUTITZAK

## Markoleko urats-iturria

*Atxabaltar bat naz eta oin dala 28 urte etorri nintzen Portasoleko etxietara biziten.*

*Garai hartan Errotabarriko zubia baino beheratxuau **urats-iturri** bat euen erreka onduen eta bertara faten ginen makina bat lagun ur hori eraten, baita futbolistak be, eta, zela ez, Markolekuek etxera erueten zituen murkokarak.*

*Gaur egun, futbol-kanpo barria ein eta errekiak arreglau dauenien, iturri hori tapauta itxi daue, baina ondiok be bere izatia erakusten dau, bai **uratsak** eta, apur bat beheratxuau, **metal-urak** be.*

*Hainbeste urtetako iturri bat lurperatziak pena haundia emuten dau; auzuen bertan be lagun batek baino gehixauk esaten dau hori ez litzakela galdu biher.*

*Udaletxiak zeozer pentsau biheko leuke, iturria be Atxabaltako historian parte da-ta. Hori herrixen jakinien ifini gura izan dot beste barik, hortarako danona dan Aretxagazeta aprobetxatuta.*

Agur bero bat  
I. U.





# Datorren domekan X. margo lehiaketa

Orain 10 urte antolatu zuen Udaletxeko kultura batzordeak lehenengo aldiz margo lehiaketa. Urte guzti hauetan makina bat margolarik parte hartu du, horien artean ospetsuak ere bai, Richard Perez, Esteban Oroz, Treku, Iñaki Rivieres.... Hauxe gain, Jose Mari Agirrezenitagoia urtero antolakuntza lanetan laguntzen ibili den margolari eibartarra ere ezin ahaztu.

Euskal Herriko leku askotatik etorritako 70 lagun inguru bildu izan ditu margo lehiaketak, eta epaimahai-kideak ere gaian oso adituak izaten dira.

Uztaileko lehenengo domekan egiten da, aurten ere uztailaren 7an. Egun honetan partahartzaileek ondorengo oharrak kontutan hartu beharko dituzte:

Lehiaketa honetan edozeinek parte hartu dezake. Teknika librea izango da eta egin beharreko margo lanak goizeko 9etatik 11etara bitartean sinatuko dira. Gaia, "Aretxabaleta eta bere ingurua" da. Epaimahaiak arratsaldeko 6,30etan emango du jakitera erabakia eta ondoren sari banaketa egingo da udaletxeko ganbaran. Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat egingo da uztailaren 8tik 20ra bitartean. Margo lanak berreskuratu gura dituztenek berriz uztailaren 22tik 30era bitarteko epea izango dute. Jasotzen ez diren lanak antolatzaileen esku geratuko dira.

Sariei dagokienez, lehenengo saria, 50.000 pezeta eta trofeoa; bigarrena



*Margo lanak uztailaren 8tik 20ra egongo dira erakusgai udaletxeko ganbaran*

30.000 pezeta eta trofeoa eta hirugarrena 25.000 pezeta eta trofeoa dira.

Lehenengo hiru postutan sartu ez diren atxabaltarrentzat ere egongo da saririk. Lehenengo saria 15.000 pezeta eta trofeoa; bigarrena 10.000 pezeta eta trofeoa eta hirugarrena 5.000 pezeta eta trofeoa.

Gazteentzat, 14 urtekoak barne, margolaritzako materiala egongo da lehenengo 2 sailkatuentzat. Herriko umeen artean ere lehenak margolaritzako materiala irabaziko du.

Margotzeko zaletasuna duzun atxabaltarrok aukera ederra duzue datorren domekan zuen trebetasuna erakusteko. Animatu zaitetzte egun honetan Aretxabaletako txoko bat hartu eta margotzen.

## Mariatxen Urkia Bartzelonara kontzertua ematera

Mariatxen Urkia sopranoa, Donostiako goi mailako kontserbatorioak eta Donostiako Turismo Etxeak aukeratu dute, Bartzelonan kontzertua emateko. Kontzertu hau, Bartzelonako lizeoa berreraikitze eta zaharberritzearen alde egiten den Gazte baloreen ihardunaldien barruan antolatu da. Ekitaldia, datorren zapatuan, uztailaren 6an burutuko da, eta Mariatxenek Gipuzkoako ordezkari moduan parte hartuko du.

## Ibai Orruñok brontzea lortu zuen

Ekainaren 21etik 23ra bitartean Palma de Mallorcan jokatu zen Espainia mailako hegats igeriketa txapelketan parte hartu zuen Ibai Orruñok. 16 urtetako atxabaltar honek brontzezko domina irabazi zuen *400 eskafandra* izeneko proban. Esan beharra dago beste probetan ere ondo ibili zela, *100 eskafandran* laugarren sartu zen eta *50 apnea* izenekoan seigarren. Honako hau Ibaik Espainia mailan irabazi duen lehenengo domina izan da. Brontzezko domina honez gain beste brontzezko bi domina ere lortu ditu Arrasateko igeri taldeak. Ane Lopez de Bergarak lortu ditu beste biak.

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

**Artano  
Taberna**

Herriko Plaza  
ARETXABALETA



**TABERNA-BERRI  
JATETXEA**

Durana, 26  
Tfnoa: 79 20 67  
ARETXABALETA



# Drogaren aurkako nazioarteko eguna dela eta ekintza ugari izango dira Bergaran

“Drogaren aurkako nazioarteko eguna” ospatzen dela eta uztailaren 12an ekintza desberdinak burutuko dira Bergaran. Deba Garaian drogak ikutu dituen familiek antolatu dute egun hau eta honako ekintzak izango dira:

Arratsaldeko 6,30etan trikitilari eta hankapaloek lagundurik giza-katea osatuko da. 7,15etan manifestua irakurriko da eta ondoren 7,45etan dantzariak dantza saioa eskainiko dute. Jarraian, Aritzeta koralak bere emanaldia eskainiko du eta egunari dultzaineroen kontzertuaz emango zaio bukaera.

“Ikas dezagun menpekotasunik gabe bizitzen” da aurtengo manifestuaren lema. Bertan, menpekotasun desberdinak,

bai alkohola, tabakoa, jokia eta legez kanpoko drogak gure gizartean lehen mailako arazoa direla esaten da. Eta horregatik menpekotasun kasu hauek eman ez daitezen prebentzio neurriak hartu beharra dagoela.

Horri aurre egiteko gizarte guztiaren laguntza eta solidaritatea beharrezkoak direla eta gizarteko pertsona askok eskuhartzea eskatzen duela ere gehitzen du. Azken finean menpekotasuna arazo izango ez den gizarte osasuntsua lortzea guztion eginbeharra dela argitu gura du manifestuak.

Hori dela eta, herritar guztiok gonbidatuta zaudete Bergaran drogaren aurka egingo den jaialdian parte hartzeko.

## Biblioporrak gida

Aretxabaletako liburutegiak, Deba Garaiko beste herri batzuekin batera Biblioporrak izena duen liburu gida atera du. Oporretan irakurtzeko interesgarriak diren liburuekin osaturik dago. Gogoratu uztailean liburutegiak ordutegi arrunta izango duela, goizeko 11etatik ordu 1etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara bitartekoa. Abuztuan itxita egongo da baina liburuak etxera eramanez izango dira irakurtzeko. Badakizue hortaz, uda honetan ere aukera ona duzuela irakurtzeko.



San Juan bezperan lagun ugari bildu zen herriko plazan.

Arratsaldean bonba japoniarren jaurtiketekin eman zitzaion hasiera egunari. Gabean, 10,30etarako plaza lagunez bete zen sua noiz piztuko zain. Gauerdian zezen suzkoak irten zuen. Ondoren tantaiaaren ordua heldu zen. Pinu sendoa ekarri zuten aurtengo kintoek eta bukaeran zailtasunak izan zituzten zuloan sartzeko. Berandu bukatu zuten lana aurtengoek eta plazan zegoen jendea aspertu ere egin zen itxoiten. Hurrengo urteko kintoek kontu eduki beharko dute horretan, fina eta luzea hobe da sendoa baino.

### ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

### Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETA

Berrikuntzak



**Feli** MODAN  
DAGOEN  
GUZTIA

Iparagirre, 4 Tfnoa.79 21 24


### BITXITEGIA

#### MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 77 13 57



## Ibarrako gradak eta aldagelak abuzturako gertu



Abuztuaren 21ean Erreal eta Alavesaren arteko partidua; inauguratuko da Ibarra futbol zelaiko aldagela eta graden eraikuntza

Kontrartistekin arazo batzuk zirela eta, behar baino beranduago hasi ziren Ibarra futbol zelaiko aldagela eta graden lanekin. Baina dagoeneko kirol instalakuntzen obrak aurrera doaz, eta gauzak aurrikusitako moduan joaten badira uztaila bukaerarako obrek amaituta egon beharko lukete. Abuztuaren 21ean izango da inaugurazio ekitaldia. Bertan UDAREN urrezko ezteiak direla eta Errealaren eta, Alavesaren aurkako partidua jokatuko da.

Grada eta aldagelak edifizio bakarrean joango dira. Gradak aldagelaren gainean, eta hauek ere estalitakoak izango dira. 500 bat lagunendako lekua dute. Edifizioak 4 aldagelaz gain, arbitroentzako aldagela, almazena, batzar gela eta taberna eukiko ditu.

## Mikel Roldan Gipuzkoako itzulian txapeldun

*Fagor taldeko 6 kideek lan bikaina egin zuten*

Ekainaren 21etik 24a bitartean jokatu zen jubenil mailako Gipuzkoako itzulian Mikel Roldanek lortu zuen garaipena. Gainera, azken etapa irabazi zuen Urrestillan, eta hau gutxi ez balitz erregularitatearen saria ere berak jaso zuen. Guztira 25 taldek parte hartu zuten proban: Arabatik bi taldek; Bizkaitik bik; Nafarroatik talde bakarrak eta gainontzeko taldeak gipuzkoarrak ziren.

Mikelen garaipen honetan, taldearen lana ere zoriontzekoa eta aipatzekoa da. Jacinto Sedano eta Luis Sebastianek (bigarren entrenatzailea) zuzentzen duten taldeak lan bikaina egin zuten. Guztira, Fagor taldeko 6 txirrindularik parte hartu zuten, horien artean, lehen urteko jubenilak: Oier Garro, Mikel Sebastian eta Gorka Gonzalez, (azken hau arrasatearra). Bigarren urteko jubenilak barriz, Mikel Roldan, Jose Sedano eta Zuhaitz Herrero, (azken biak arrasatearrak), izan ziren.



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55





Iazko urtean koadrila haundia bildu zen Apotzan

Urtero moduan datorren zapatuan, uztailaren 6an Aretxabaleta eta Eskoriatzako atzeratuek anai-arteoko bazkaria egingo dute Apotza auzoan. Bazkal aurretik jokuak egingo dituzte. Arratsaldean barriz, dantzatzeko musika izango dute. Aber ba, Apotzan biltzen diren guztiek egun polita pasatzen duten.

## Andramaixetako programa gertu

**Baron Rojo eta La Txusmaren kontzertua da nobedade haundiena**

Oraindik hilabete eta erdi geratzen da Andramaixetarako, baina dagoeneko egitaraua osatuta dago. Herriko koadrilek prestatu dute programa, kultura batzordearekin batera. Horretarako jakina, hainbat batzar egin dute. Ekainaren 27an azkenengo batzara egin zen egitaraua aurkeztu eta azkenengo proposamenak jaso ahal izateko. Deialdia herriko hainbat koadrilari egin zitzaion baina oso lagun gutxi aurkeztu zen.

Aurten behintzat, herritarrok erabakitako programa izango duzue eskuetan.

Ekintza berrien artean, aipa-

tzeakoak dira *Rakoto* taldearen emanaldia eta Rock kontzertua "*Baron Rojo*" eta "*La Txusma*" taldeekin. Tango erakustaldia; azken eguneko bazkari herrikoia (aurten norbere bazkaria eramanez egingo dena) eta egun honetan ospatuko den *Hortera Eguna*. Azken honetan, baldar jantzi eta giroa sortzen duten taldeentzat sari garrantzitsuak egongo dira. Ekintza huez gain, aukera zabala eskaintzen du programak.

Gainera, 4 buruhaundi berri estreinatuko dira jaietan eta lehen-goak ere itxura berriturik agertuko dira.

## Fagor Ederlani saria

Fagor Ederlanek CASTOLIN + EUTECTIC Suitzako institutoak ematen duen "Urteko kontserbazionista saria" jaso du, MCCn automoziorako piezak egiten dituzten beste enpresa batzuekin batera.

Saria, Ederlanek soldadura tratamenduetan energia eta lehengaiak aurrezteko egin dituen ahaleginengatik eman diote.

Fagor Ederlan, Estatuan sari hau jaso duen lehen enpresa da. Suitzako institutuak azken 10 urteetan dihardu sari hau banatzen.

Orain artean, mundu zabaleko hainbat enpresak jaso du sari berbera: Alemaniako BMW, Kanadako Alcan eta Steel, Frantziako Ciment Chiron eta Sacilor Sollac, Britainia Handiko Rover eta Bowater-Scott, Japoniako Toyo Glass eta Mexikoko Tremec enpresek irabazi dute.

## Su txikia Kurtzebarri eskolan

Joan den martizen arratsaldean, sua piztu zen Kurtzebarri eskolako atzekaldeko gela baten. Gela bateko persiana eta atea kiskalita gelditu ziren. Itxuraz, norbaitek su eman zien eskola ostean pilatutako papelei, eta atea ere su hartu zuen. Ertzainak eta suhiltzaileen 3 kamioi etorri, eta eskola guztia uztu zuten. Ez zen bestelako kalterik izan.

**MAITE**  
ileapaindegia

/// // // //

Sarasate, 1 ☐ 79 59 05  
ARETXABAleta

**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa  
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

**JOLAS**  
**LEKU**

Mitarte, 10  
Aretxabaleta

**IZOTZ**  
Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaleta





# Galdu ez, eraldatu

Bazen behin, narraztiak Lu-  
rrean nagusi zireneko garai bat.  
Narrazti horiek gaur egun DINO-  
SAURO izenarekin ezagutzen  
ditugu. Duela 65 milioi urte ordea  
meteorito batek gure planeta jo


inaktibo pasatzen zituzten gau hotz  
haiek.

Lekurik ezak ordea, narrazti talde  
bat gauda kolonizatzaera bultzatu zuen.  
Odol hotzeko animalia izatetik odol  
berokoa izaterako pausua, asmakuntza  
garrantzitsu bati esker eman  
zuten: **ilea**. Ileak beren  
gorputzaren berotasuna  
mantentzen lagundu zien eta  
denbora pasa ahala beren  
barne-metabolismoa kontrola-  
tzen ikasi zuten. Baina  
eraldaketa ez zen horretara  
mugatu, izan ere ugatzak  
(titiak) garatu baitzituzten,  
**UGAZTUN** bihurtuz. Denbo-  
raren poderioz gauaren jabetza  
hartu zuten.

Narraztien beste talde batek  
berriz, airea kolonizatze-  
ko ideia izan zuen. Hasera batean,  
besoetan mintzak eratu (gaur  
egungo saguzaharren antzera)  
eta planeatzen ikasi zuten.  
Baina ugaztunen eboluzioan  
bezala, beraien arrakastaren  
giltza beste asmakuntza bat  
izan zen: **luma**. Lumari esker  
gorputz arinagoa lortu zuten,  
eta ez hori bakarrik, lumak  
ematen duen berotasunak  
odol beroko animalien kluberantz  
bultzatu zituen izaki berri hauek, hau  
da: **HEGAZTIAK**.

Sarreran aipatu bezala, duela 65  
milioi urte meteorito batek Lurra jo eta  
20 Kg.tik gorako animalia guztiak hil  
egin ziren, tartean narrazti erraldoi guzti  
haiek. Dena dela, ezin dezakegu esan  
dinosaurioak erabat galdu zirenik, izan  
ere beraien ondorengoak oraindik ere  
bizirik daude (**narraztiak, hegaztiak  
eta ugaztunak**).

✍️ **Mikel Arroiabe**



Hegaztien eboluzioa

## eta guztiak hil ziren. Bai ote?

Itzul gaitezen meteorito aurreko  
garai urrun haietara. Orduko gure  
Lurra egunargiz Bilboko *Gran Via*  
zirudien, izan ere narraztien super-  
populazio nabaria zegoen. Baina orduko  
gauek ez zuten oraingoek daukaten  
martxarik, izaki guztiak lo egoten ziren  
eta. Zergaitia oso erraza da; garai  
hartako animalia guztiak odol hotze-  
koak ziren, hau da, ingurune-  
ko tenperaturak mugatzen zien gorputzaren  
metabolismoa. Horrela ba, animaliek

T  
X  
I  
L  
A  
R  
R  
A



## ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA




Zenbaki

## Aholkularitza

Basabe Industrialdea  
**Aretxabaleta**

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA**

**ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE





## Mikel Egizabalek agur esango digu irailean

Orain 6 urte etorri zen Mikel Egizabal gure herrira Don Bitorianori abade lanetan laguntzeko. Urte hauetan auzoen ardura eta gazteena (sendotza) izan ditu Mikelek eta bere abade bizitza otoitzean, bileretan, mezak ematen eta bere forma-kuntzan eman du.

38 urtetako lasartear honek, irakurtzea, mendira joatea, zinea eta musika entzutea ditu gogoko besteak beste. 6 urte hauetan ondo ezagutu ditu herriko inguruak, Kurtzebarri eta Degurixa inguruak batez ere.

Txikitan abade izatea gura zuela esaten zion amari. Hala ta be, COU bukatu eta "Medicus Mundi"-ko partaide izatea zuen buruan. Baina bizitzak beste bide bat hartu zion eta 20 urtekin peritajea ikasten hasi zen Donostian. Ez zuen zorte onik izan ordea, fisika arloarekin muturjoka ibili ostean karrera utzi eta abade izateko erabakia hartu zuen.

Bost urteko abade ikasketak egin zituen eta ordutik bere abade izateko joera haunditzen joan zaio. Hasiara baten Gortzaia Gatzagara bialdu zuen baina han aspertu egin zen. tratatzeko eskatu digu Mikelek.

Aretxabaletako elizbarrutiak aldatu izango ditu laster. Irailean agur esango digu Mikel Egizabalek. Gure herria utzi eta Amasara Billabonako auzo batera joango da abade lanak egitera. Honez gain, parroko berria etorriko zaigu. 31 urte dituen Antonio Astigarraga azkoitiarra. Don Bitoriano laguntzaile moduan geldituko da. Gaurkoan Mikel Egizabalekin izan gara, gure herrian azken 6 urteetan abade laguntzaile lanak egin dituenaz.



"Lan gutxi zegoen eta beste leku batera aldatu gura nuela esan nion Gotzaiari. Nik ipini nion baldintza bakarra euskal giroko parrokoa bat gura nuela izan zen". Horrela ba, Gatzagatik, gure herrira etorri zen. Baina hemengo etapa ere bukatu zaio. Orain, irailetik aurrera Amasan, Billabonako auzo batean parroko lanak egingo ditu. "Bi aukera nituen: ni Aretxabaletako parroko izendatu edo beste herri batera joan. Gotzaiaren erabakia izan zen ni herriz aldatzea".

Penaz dago gure herritik jaoteko. 6 urte hauetan jende asko ezagutu du eta herriko giroa ere gogoko zuen Mikelek. Hala ta be, berak esaten duen moduan, bera ez zen Aretxabaletarako apaiztu Gipuzkoarako baino.

Irailean aldegingo digu hortaz Mikelek Billabona aldera. Don Bitorianok parroko laguntzaile lanak egingo ditu eta parroko berria etorriko zaigu herrira. Antonio Astigarraga 31 urtetako azkoitiarra hain zuzen ere. Hori dela eta, azken honi harrera beroa egin eta bera bezain ondo

**"Herrira datorren parroko berria ni bezain ondo tratatu ezazue"**

**PAGALDAI**

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
ARETXABALETA

BEIRALAN



**KRISTALDEGIA**

Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

**KIXKOR  
TABERNA**

Mitarte 13 ☎ 79 20 60  
Aretxabaleta



**Datorren uztailaren 23an jubilatuko da herriko komadrona izan den M<sup>a</sup> Asun de los Santos Herranz. Valladoliden jaioa bada ere, orain 31 urte hasi zen gure herrian komadrona lanetan. Urte luze horietan makina bat injekzio eman eta erditzeetan parte hartu du. Herritarroi lehen mailako harreta zerbitzua ematea izan da azken urteetako bere lana.**



## *M<sup>a</sup> Asun de los Santos*

# 31 urtez herriko emagin

### • Nola etorri zinen Valladolidetik Aretxabaletara?

Valladoliden jaiotakoa banaiz ere Palentzian lan egiten nuen. Nire aita eta anaia praktikanteak ziren eta bata Oñatira etortzen zen eta bestea Arrasatera. Eurak esan zidaten Aretxabaletako komadrona postua utzik zegoela eta Palentziaz eskudentzia eskatu nuen hona etortzeko.

### • Familiako eragina ere izan duzu hortaz komadrona egiteko orduan?

Esan dudan moduan, nire aita praktikantea izan zen eta garai haietan praktikanteak erditzeetatik ere arduratzen ziren. Guzti honek eragina izan du nigan, nire aitak hurbildu ninduen erizainen mundu honetara. Nire txikitako ametsa maistra izatea zen, baina erizain karrera ikasi nuen azkenean eta gaur egun oso pozik eta gustora nago nire lanbideaz.

### • 1965. urtean Aretxabaletara etorri zenez geroztik zure lana asko aldatu da?

Bai, asko. Aretxabaletara heldu nintzenean bakarrik lan egiten nuen. Estatuko funtzionarioa nintzen. Etxean neukan kontsulta eta enfermeria lana egiten nuen bertan, injekzioak eman gehienbat. Etxeetara ere joaten nintzen injekzioak ematera, eta baita erditzeetan laguntzera ere. Kontutan izan behar da, orduan emakumea erditzerako orduan bakarrik egoten zela nirekin.

Gaur egun nire bizimodua guztiz aldatu da. Orain, osasun zentruan nago lanean, lehen mailako harreta zerbitzua eskainiz. Haurdunaldi kontrolaz eta planifikazio familiarra eramateaz arduratzen naiz. Ginekologoa astean behin etortzen da, eta arazo ginekologikoak konpondu ditzakedan neurrian ere konpontzen ditut.

### • Zer gogoratzen duzu hasierako urte haietaz?

Hona etorri nintzenean Felix Rapun zen herriko praktikantea. Medikuak barriz, Isaias Fraile eta Enrique Samaniego ziren. Orduko lana oso gogorra zen. Egunko 24 orduetan lan egin behar izaten nuen. Edozein ordutan deitzen zizuten-eta etxeren batetik. Atsedean ziurrik bariko lana zen. Behin edo behin etxeren baten ere gelditu izan naiz lo egiten. Osasun zentrua zabaldu artean ez dut oporrik izan. Egun batean 4 erditzetan ere parte hartu nuen.

### • Osasun zentrua zabaltzea, orduan, aldaketa handia izan da zuretzat.

Bai, jakina. Orain 14 urte zabaldu zen osasun zentrua eta hau beste gauza bat da. Orduan utzi nion etxeetara joateari. Orain emakumea zentrotik etxera etorri ostean atenditzen dugu. Hala ta be,



norbaitek deitzen badigu joaten gara zainketa batzuk egitera, laguntzera, e.a. Gaur egun ume guztiak zentroan jaiotzen dira, kasu bereziren bat ez bada behintzat. Zentroan ere komadronak laguntzen du erditzerako orduan. Konplikazio bat dagoenean, orduan hartzen du parte ginekologoak.

• **Zenbat urtekin hartu zenuen parte lehenengo aldiz erditze batean?**

Aitarekin, 19 urterekin joan nintzen erditze batera. Gero ni bakarrik 21 urterekin hasi nintzen. Lehenengo erditzean beldurra pasatu nuen, zerbait gertatuko ote zen beldur nintzen. Karreraren teoria bakarrik erakusten dute, baina praktika oso gutxi. Eguneroko lanetik poliki-poliki ikasiaz joan naiz.

• **Hona etorri baino lehenago beste leku batean ere lan egindakoa zara?**

Bai. Dagoeneko 44 urte eman ditut komadrona lanetan. Aretxabaletara etorri aurretik Palentziako herri batean lan egin nuen 13 urtez. Hortaz, hona heldu nintzenez banuen komadrona lanetan esperientzia.

• **Anekdotarik izango duzu kontatzeko...**

Urte asko egin ditut komadrona, eta gauza asko pasatu dira tarte luze honetan. Orain gogoan dudana gertaera bat kontatuko dut. Haurdun zegoen emakume batek hainbat alditan deitu zidan erditzera zihoala eta bere etxera joateko. Baina joaten nintzen bakoitzeko emakumea ez zegoen oraindik erditzeko gertu. Gero erditzeko ordua heldu zitzaionean senarrak



**“Osasun zentrua zabaldu aurretik, injekzioak eman eta zainketa batzuk egiteaz gain erditzeetan parte hartzea zen nire lana”**

ostera ere berdina gertatuko zela eta ez zen nire bila etorri. Azkenean nire bila etorri eta etxera heldu ginenean umea jaiota zegoen. Emakumea mariatuta zegoen. Arazo handia izan nuen baina azkenean konpondu zen dena.

Beste behin Arrasatetik deitu zidaten. Umea hankekin aurrera zetorren eta denbora asko eman zuten irten ezinik. Azkenean ito egin zen.

• **Garai haietan erditzeren baten konplikazio bat sortzen bazen, zer egiten zen?**

Emakumea klinikara bialtzen zen. Gure bailaratik Gasteizera, Arana klinikara joaten zen, Arrasateko zentroa egin barik zegoen artean.


• **Zer egingo duzu jubilatutakoan?**

Oraindik ez dut ezer berezirik pentsatu. Nire lanarekin oso pozik nago baina adina heldu zait. Uztailaren 23an utziko diot osasun zentroan lana egiteari. Orduan beste komadrona berri bat jarriko da nire postuan.



*Atxabaltar asko mundura ekartzen lagundu du Mariasunek*






# Bizikletaz ibilbideak

## 4. ibilbidea:

### Leixargarate eta Aitzorrotz

- **Denbora:** 2-3 ordu.
- **Etaparen deskribapena:** Gaurko etapa honetan pistaz pista hegoalderantz mugituko gara, Leintz Bailarako ekialdeko magal eta tontorretaraino. Leixargaratera heltzean ia Elgeako mendatean sartuko gara, Gipuzkoa eta Araba arteko mugan. Etapa honetan zatirik haundiena pistaz egingo dugu, nahiz eta hasiera eta bukaera errepidez izan. Aipatzekoak dira Leixargaratera bidean aurkituko ditugun malda gogorrak; beraz etapa hau lasai hartzea komeni da.
- **Ura:** Ura aurkitzeko arazorik ez dugu baina komeni da pasatzen garen iturrietan urez hornitzea.
- **Katalogazioa:** \*\*



## ETAPAREN DESKRIBAPENA

- **MENDIOLA** auzorako bidea hartzen dugu eta bidean **ARKARAZO** auzoa pasatuko dugu baina beti gorantz jarraitu **MENDIOLAKO** monumentura iritsi arte.

- **MENDIOLAKO** monumentuan, asfaltoa amaitzen da. Monumentuaren eskumatara gelditzen den porlanezko bidea hartuko dugu, Peñakulora doana. (Hemen malda gogor batzuk hasten dira).

(Ura hartu gura badugu, auzoan dago iturria eta jatetxea ere badago).

- Porlanezko pista utzi eta eskumatara doan beste pista bat segitzen dugu, egoera txarragoan dagoena.

- Aldapa bukatzen den puntuari aurrera jarraitzen dugu, ezkerretara doan pista utzita. Ia bertan txabola (eskumatara) baten albotik pasatzen gara. Jarraitu aurrera

- **DRAGALEKU**, tontorra hartuaz bat aurrera jarraitzen dugu aldapan behera, ezkerretara eta gora doan pista utzita.

- Aldapa behera bat jeitsi ondoren, ezkerretik jarraitzen dugu. Laister ezkerretara hartuko dugu malda gogor batetik.

- Bidearen ezkerrean iturri bat dago, komeni da bertan ura hartzea, Leixargarateraino ez dago eta beste iturririk.

- Jarraitu ezkerretik, eskumatara doan lurrezko pista

bat utzita.

- Adi! Bide nagusia ezkerretara utzi eta belar eta lurrezko senda bat hartzen dugu eskumatara.

(Hemendik, beti aurrera jarraitu eskumatara agertzen diren pista guztiak baztertuz).

- Bidea amaitzen dela dirudi. Harri arte honetan bizikleta bizkarrean hartuta igo beharko dugu aldapa. Jarraitu aurrera.

- Pinuditik irteteaz bat eskumatara jeitsi senda estu batetik, pista nagusia agertu arte. Hemen ezkerretara hartu eta pista hau jarraituz ez dago galtzerik.

- **LEIXARGARATE**. Bidegurutzean **AITZORROTZ**era joateko eskumatara hartuko dugu.

- Ezkerretik gorantz jarraitu.

- Eskumatik jarraitu ezkerretara doan pista utzita.

- Aldapa bat jeitsi ondoren bidegurutze batetara iristen gara. Zuzen doan bidea hartuko dugu, bide nagusia utzita.

- **AITZORROTZ**. Eskumatara behar bezala doan bidea hartuko dugu, bide honek Bolibarrera eramango gaitu.

- Bidea bitan banatzen da. Bietatik edozein hartuta leku berera eramango gaitu.

- Bidegurutzean eskumatara hartu **BOLIBAR** auzorantz. Hemendik behera jarraituta **ESKORIATZAN** agertuko gara. Etapa amaiera.



# Futbitoa nagusi uztailean



Goiz eta arratsaldetan futbitoa ikusteko aukera dago Arlutz osteko kantxan

## Peña Zubizarreta torneooa

Uztailean zehar bai goizez eta baita arratsalde ere futbitoa ikusteko aukera dugu Arlutz osteko kantxan. Goizetan txikienak dira protagonista Peña Zubizarreta torneoaren barruan. Uztailaren leian eman ziztaion hasiera torneoari eta 24an izango du bukaera. Torneoan ume mordo bat daude apuntatuta eta partiduak astelehen, eguazten eta eguakotx goizetan jokaten dira Arlutz osteko kantxan. Umeen futbito txapelketa polita ikusteko aukera daukagu goizetan.

## 30 talde apuntatu dira Arlutz futbito txapelketan. Horietako bat neskena.

Hasi da Arlutz futbito txapelketa jokaketan. Aurten 30 taldek eman dute izena eta horietako bat nesken taldea da, "Txapeldunak moralki" hain zuzen ere. Horrenbeste mutilen artean jokaketako merito galanta daukate. Animo, ez beldurtu!

Domeketan izan ezik, egunero jokatuko dira partiduak Arlutz osteko kantxan. Asteazken zehar egunero 5 partidu, eta zapatuan 15, bai goiz eta bai arratsalde. Txapelketa aurrera eramateko, 10 taldez osatutako 3 talde desberdin sortu dira. Hona hemen taldeok:

### A taldea

Asto baltzak  
Orlando  
Taxier  
Txekorrak  
CBB 23  
Sr. Arebalo  
D.D.K.  
Ajax Pino  
Peña Zurito  
Oso Avisore

### B taldea

O.T.K.  
A.C. Surcos  
Hijos del agobio  
Lupen  
N. Mecanica  
Itxoiten  
Aurrera bolie  
Kaiser  
BUFF!!!  
JASP

### C taldea

J.R.B.  
Palentinaicos  
Balla Globox  
Klara Alpargalo  
Ekix  
Odol gutxi  
Menos Fatxus...  
Otxoatarrak  
Pitotxas  
Txapeldunak "Moralki"


## EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...  
Enpresendako promozio bideoak.  
Eskola eta Elkarteendako  
promozioak eta ekintza bereziak.  
Etxeetan grabatutako bideoen  
muntaiak.  
Otalora 15 • ARETXABALETA •  
Tfnoa: 79 78 37

## TXIMAK ileapaindegi mistoa



Herriko Plaza, 5 - behea  
Tfnoa: 79 83 64  
ARETXABALETA



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia



Industrialdea 1-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792941





165 ume apuntatu dira aurten udaleku irekietan

# Udalekuetan, uda desberdina

Uztailaren 1ean hasi ziren udaleku irekiak. Guztira 165 ume elkartu ziren eta hauekin batera 22 monitore.

Umeen artean, eskolaurreko umeen partaidetza haundia izan da aurten, baina ez ostera nagusiena. Azken hauek oso kopuru txikia apuntatu dira.

3. urtea betetzen da aurten Ortzadarrek bere kabuz udaleku irekiak antolatzen dituen. Baina udako ekintza hauek urtean zehar eginkoaren jarraipena izaten dira. Izan be, urteko beste sasoieta ere, zapatur-zapatur umeekin ekintzak egiten ditu

Ortzadarrek.

Aurtengo udalekuetan izango da nobedaderik: ekintza berrien artean piraguismoa praktikatzeko aukera izango dute nagusienek. Honez gain, Landara eta Galartzako dorretxera akanpada ere egingo da.

Umeak dibertitzeko ekintzak ez dira faltako: Uraren eguna, San Fermin eguna, Euskararen eguna eta azken eguneko jaialdia ere hortxe izango dira. Guztiek dibertitzea dute helburu eta ziur hori lortuko dutela.

## Ondo pasatu!

## MIKELOS

Moda  
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67  
ARETXABALETA

## ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

## DOIKALSE

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44

## JOSU

*HARATEGIA*

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

## JOSE MARI bodegoia

( Eguneko menua  
( Bataioak  
( Jaunartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45  
ARETXABALETA

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta


**Dorleta  
Taberna**

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
Aretxabaleta

**Martín**  
RELOJERIA • PITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72





## Udako oporrrak

Kurtso amaiera heldu zaigu. Umeek hartu dituzte udako opor luzeak eta kalea dute orain euren txokoa.

Argazkian agertzen diren neskek ere 1946. ikas-

turteko kurtso amaieran argazkia atera zuten Aretxabaletako eskola aurrean. Denak txintxo-txintxo, soineko dotorez eta ondo gordetako iladetan jarri ziren, gerora oroimenean gordeko zen argazki txukun hura ateratzeko.

Baina ziurrenik ez zuten gaur egungo umeen moduko oporraldirik izango, ez horixe! Nora zoaz oporretara? Ez zioten galdera hori elkarri egingo. Gaur egun barrez, oporretako galdera arrunta bihurtu da. Baina gaur egungo umeek ikusi ez duten zeozer bazuten orduko umeek, bainatzeko erreka garbia. Deba ibaian makina bat txipristin hartu eta jolastutakoak izango dira argazkiko neskek. Pistina eta plaiarik ez, baina erreka ederra eta bizia zuten orduko umeek, eguzkiaren berotik freskatzeko.

Argazkikoak: Goiko iladan ezkerretik eskumara: **Maritxu Mondragon, Miren Gastañaga, Francisca San Migel, Paquita Arando, M<sup>a</sup> Clara Axpe, Mertxe Altube, Antonia Gastañaga, Carmen Urkizu, Isidora Egia, M<sup>a</sup> Luisa Idigoras, Ines Iturriaga.**

2. iladan: **Dorleta Arana, M<sup>a</sup> Teresa Andonegi, Francisca San Migel, Ana M<sup>a</sup> Aretxaga, Karmen Garciaetxabe, M<sup>a</sup> Nieves Uribesalgo, Encarnacion Herce, Angelita Ibarzabal, Benita Lete, Maritxu Zugasti, Maritxu Makazaga, Maritxu Izurrategi, Teresa Arenaza.**

Jarrita: **Amaia Alberdi, Arantza Elkorro, Asun Elkorro, Begoña Etxebarrieta, Mari Zabala, M<sup>a</sup> Tere Arenaza, Pili Larrañaga, Arantza Zabala, M<sup>a</sup> Kristina Bengoa, M<sup>a</sup> Angeles Unanue, Pilar Olazabal, Pilar Isasmendi.**

Maistra: **M<sup>a</sup> Luisa Pinedo.**

Leihoaren barruan dagoena: **Arantza Uribetxebarria.**



ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S. A.

# “ARINSA”

Basabe Poligonoa “EO-10”  
Tfnoa: 79 62 80  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

## OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

MEMESA S.L.

**Industriaren alde**

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA



# Agur, agur



M.J. Aretxaga

Urte sasoi honetan asko erabiltzen da berba hau. Ikasleek agur esaten diete klasekoei, kurtsoari; selektibitate frogan jasandako urduritasunei beste batzuk, eta beste batzuk familiari, ikastera kanpora joango direlako.

Guk **Mikel Egizabali**, abadeari esan behar diogu agur. Aurki joango zaigu Atxabaltatik eta. Bati agur eta ongi etorria beste bati, **Antonio Astigarragari**, 31 urte dituen azkoitiar gazteari. Hau izango da herriko abade barria. Ezagutzeko irrikitan nago, presentzia onekoa dela entzun dut eta.

Beste lagun ezagun bat ere agurtu beharrean gaude. Herriko komadrona, **M<sup>a</sup> Asun de los Santos**. Baina kasu honetan bere lana utziko

duelako esango diogu agur, jubilatatu egiten da eta.

Beste batzuk ere badoaz. Abuztuan Shisha Pangma igotzeko asmoa dute **Felix eta Alberto Iñurrategik**. Itxura denez deskantzatu dute nahikoa eta berriro ere Himalaia aldera alde egiteko gertu daude.

Aurtengo **tantaixari** ere agur. Lan ederra hartu zuten altzetan, baina ikusten egon ginenok ere... (Ea datorren urterako neurriak hobeto hartzen dituzten, lanak aurten baino azkarrago eta samurrago bukatzeko). Baina altxatzea zaila eta luzea izan bazen ere, badirudi beste atxabaltar batzuei ez zitzaie horrenbeste kosta lurrera botatzea. Eurak behintzat gustora geldituko ziren. Denok gura duguna gura dugunean egingo bagenu...

Agurtu aurretik, atxabaltar bat zoriondu behar dut. **Mikel Roldanek** Gipuzkoako itzulia irabazi zuen. Martxa honetan laster Tourreko porretan ere bere izena agertuko da.

Niri ere agur esateko ordua iritsi zait. Nekatuta nago San Juan eta San Pedro jaiak behar den moduan ospatu ondoren. Orain atsedena hartu behar dut, laster datozen **San Ferminetarako** eta **Portasoleko** jaietarako ostera be gertu egoteko.

## ARETXAZOKA

### LANA

- Umeak edo zaharrak zainduko nituzke edo eta etxeko lanak egin. Tfnoa: 77 02 13
- Idazkaritzan diplomatuak lanak ordenagailuz pasatuko nituzke. Tfnoa: 79 31 47.
- Euskeraz, ingelesez, gaztelera eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

- Giltza batzuk galdu dira Loramendi monumentuaren ondoan. Norbaitek aurkitu baditu deitu 79 43 75 telefonora. Eskertuko zaio.

### ETXEBIZITZA

- Apartamentu bat salgai dago Eskoriatzan. Telefonoa: 74 01 17
- Pisu bat salgai dago. 83 m<sup>2</sup> ditu eta jantzia. Solo haundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma).

- Garaje bat salgai dago Murubide kaleko 15. zenbakian. Telefonoa: 77 00 97.

- Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

- Pisu salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Egurdian eta arratsaldean).

- Laredon uztailean apartamentu bat alokagai dago. Telefonoa: 79 52 80.

- Laredon pisua alokagai dago. Tfnoa: 79 31 47.

- 3 neska euskaldunek pertsona bat behar dute Madrilan pisua osatzeko, ekainetik aurrera. Tfnoa: (91) 4043838

- 82 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

- Garaje bat alokagai dago. Santa Kurtz kaleko 24. zenbakian. Lurrazpiko lehenengo pisuan. Telefonoa: 79 05 28

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.





Josean Uribetxebarria

## “Gaur egun dagoen kompetentziaz, mantentzea ere ez da erraza”



Josean orain urte eta erdi hasi zen Beiralan kristaldegian lanean. Lanbide honen inguruan ikastaro bat egin ondoren zenbait tallerretan ofizioa ikasten aritu da. Azkenik bera eta beste lagun baten artean kristaldegia jarri zuten.

### • Zelan ipini zenuten kristaldegia?

*Gaur egungo egoera ikusita, zerbait ikasi eta zure enpresa montatzera ia behartuta zaude.*

### • Zergaitik kristaldegia?

*Mankomunitatearen bitartez kursilo bat egin genuen ofizio honen inguruan. Gustatu egin zitzaigun eta horrela hasi ginen.*

### • Non ikasi duzue ofizioa?

*Nafarroako kristaldegia batean ibili ginen ikasten, eta baita Eskoriatzan ere.*

### • Zelan doa negozioa?

*Kompetentzia haundia dago eta ez da batere erraza aurrera egitea. Bestela lana gustoko dut eta denbora hobekia etorriko direla uste dut.*

### • Ze lan mota egiten duzue?

*Kristala edozein neurritara ebagi eta puliratu egiten dugu.*

### • Eguneko momenturik onena?

*Goiza.*

### • Edade ideala?

*18 urte.*

### • Jai onenak?

*Andramaixak.*

### • Etxean ze lan egiten duzu?

*Amai lana eman.*

### • Musika talde gogokoena?

*Hemengo kantak gustatzen zaizkit.*

### • Dutzatu ala bainatu?

*Dutzatu.*

### • Zure bertute bat?

*Asko saiatzen naiz eta lortu arte ez naiz geratzen.*

### • Akats bat?

*Aguro haserretzen naiz.*

### • Emakume bati zer oparituko zenioke?

*Bitxi bat eta espilu bat.*

### • Oporretara nora?

*Galiziara joateko asmoa nuen baina aurten agian ezingo dut eta datorren urterako utzi beharko dugu.*

### • Biziorik?

*Noizean behin parranda egitea gustatzen zait.*

### • Pertsonengan ze kualitate baloratzen duzu?


*Egia esatea.*

### • Ze ordutan oheratzen zara?

*Astean zehar 10,30ak inguruan.*



## Irakurtzeko liburuak



**Titulua:** 1948ko uda

**Idazlea:** Zubizarreta, Patxi

**Argitaletxea:**


Arrigorriaga SM, 1994

**Saila:** (Baporea, 13)

Beñat larunbat arratsaldean etxean geratu da asteleheneko azterketa prestatzeko. Etxean bakarrik dago eta aitari zigarro bat hartzea erabaki du. Aitaren mesanotxera joatean, aitak gaztetan idatziriko egunkari bat aurkitu eta irakurtzen hasi da. Bertan gerraosteko bizipenak kontatzen ditu eta Beñatek beretzat ezezagunak diren gauza asko jakingo ditu, bere gaurko bizipenekin konparatuz. Irakurketa amaitzean Beñatek berak ere egunkari bat idaztea erabakiko du.

Liburu honek 1993ko “baporea” bildumako lehen saria irabazi zuen. 12 urtetik aurrera irakurtzeko oso aproposa da.

✍ Joseba Lopez de Armentia




## ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia  
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30



Amaia-Berri, S.L.

## Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



**BERGARA**



**Uztailak 7**

**MUSIKA ESKOLAREN JAIA SAN MARTZIALEN**  
Goizeko 11etan **IGOERA**, Musika Eskolako gazteen bandak lagunduta.  
Ondoren, **BAZKARIA** eta **JOKUAK**.

**JUSTO GARATE ARRIOLA BEKA**

Bergarako udalak giza-zientzien alorrean ikertzaile gazteen artean ikerketa sustatzeko xedez, Justo Garate Arriola jakintsu bergararraren omenez, urtero antolatzen duen **IKERKETA-BEKA** aurten **HISTORIARI** zuzenduta egongo da. Ikerketa-beka honen ezaugarrien inguruko informazio gehiago Bergarako Udaletxean jaso daiteke, telefonoa: 77 91 58.

**ARRASATE**



**Uztailak 11**

**ZINEA**

**"JUSTINO, UN ASESINO DE LA 3ª edad"**. Monterron parkean gaueko 10,30etan.

**Uztailak 12 eguakotxa**

**ANTZERKIA**

**Taftan Club**-en **"FRANKENSTEIN"** Iñaki Unamuno arrasatearraren partaidetzarekin. Monterron parkean gaueko 10,30etan.

**Uztailak 15-22**

**IKASTAROA**

**JOSKINTZA IKASTAROA**. Monterron kultur etxean.

**Uztailak 18 eguena**

**ZINEA**

**"Braindead"**. Monterron parkean gaueko 10,30etan.

**OÑATI**



**Uztailak 4-7**

**JOSE MARI AGIRREBENGOARI OMENALDIA**

*Uztailaren 4tik 7ra:* Unibertsitateko kapilan herritarren **pintura erakusketa**. Udaletxeko pleno aretoan, **herritarren zeramika, banaztagintza, eskulanan**, e.a. erakusketa.  
*Uztailak 5:* Arratsaldeko 7retan txorimaloak. 10,30etan San Anton plazan, **HATOR** eta Oñatiko **rockero zaharrek**in kontzertua. Ordu berean, Gaztelekun, herriko Rock taldeen kontzertua. **LATZEN, HOR KONPON** eta **FUCKING PERFORMER**.

Uztailak 6: 11etan **DIANA**. Plazan **haurrentzako jokuak**. 12etan parrokiari **Jose Mari Agirrebengoaren omenez meza**. Eguerdiko ordu batetan, San Anton plazan bertsolariak, **Sarasua, Egaña, Peñagarikano eta Lisazo**. Ondoren **sagardo dastaketa eta trikitalariak** eta **Larrain dantza** herrikoia. Gaueko 10,30etan polikiroldegian **jaialdia herriko talde kultural** guztiekin.

**"Gazteak eta Intsumisioa"**

**VII. argazki lehiaketa**

Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzua eta ASA argazki elkarteak antolatu du **"Gazteak eta intsumisioa"** argazki lehiaketa. Bi modalitate, koloretan eta zuribeltzean. Gaia: "Gazteak eta intsumisioa". Lanak aurkezteko epea urriaren 11. Informazio gehiago Arrasateko gazte bulegoan. Telefonoa: 77 00 65.

**ZARAIA TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

**MANTEKA ANAIK**



**ARBULO HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 79 02 24  
**ARETXABALETA**

**MENDIOLA ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

**Astelehenetan itxita**  
Tfnoa: 71 43 45  
**ESKORIATZA**





**BEHARREZKO  
TELEFONOAK**

**Uztailak 14 domeka**

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaeta-Eibar-Arrate (Usartza)-  
Barinaga-Markina-Berriatu-Ondarru-  
Deba-Aretxabaeta...110 Km.

**Uztailak 19, 20, 21**

**SAN LORENTZOAK**

**Uztailak 6 zapatua**

**ATZERATUEK ANAI-ARTEKO  
BAZKARIA APOTZAN**

Aretxabaletako eta Eskoriatzako  
atzeratu eta euren familiartekoak  
Apotzan elkartuko dira eguna  
pasatzeko.

**Uztailak 7 domeka**

**X. PINTURA LEHIAKETA**

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaeta-Arlaban-Legutiano-  
Ollerias-Barazar-Zeanuri-Areatza-  
Castillo-Elejabeitia-Igorre-Dima-  
Otxandiano-Legutiano-Landa-  
Aretxabaeta...104 Km.

**Uztailak 10 eguaztena**

**SAN KRISTOBALAK LARRINO AUZOAN**

**Uztailak 13 zapatua**

**KINTO AFARIA**

1959ko maiatzatik 1960ko ekainera  
jaiotako kintoen afaria.

**Loramendi Elkarreak antolatutako  
pegatina lehiaketan partaidetza  
haundia**

Jendeak ondo erantzun du  
Loramendi Elkarreak Andramaixe-  
tarako antolatutako pegatina  
lehiaketan. Herriko 10 tabernatan jarri  
ziren esloganak botatzeko buzoiak  
eta guztira 65 lagunek parte hartu  
du. Epaimahaikoek lan haundia  
daukete orain aukeraketa egiten.  
Hurrengo Aretxagazetan irabazlea  
nor izan den eta pegatina  
ezagutzera emango dugu.

**Kinto afaria**

1959ko maiatzetik 1960ko ekainera  
bitartean jaiotako kintoek afaria  
izango dute uztailaren 13an.  
Apuntatzeko uztailaren 7a baino  
lehenago egin behar da Taberna  
Berri jatetxean 1000 pezeta ordainduz.  
Txikiteoa 8,30etan hasiko da eta  
afaria 9,30etan.

**Aretxabaeta**

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarrea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi K.E.	77 0970
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	76 14 69
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

**Denetarik**

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088

**ENBOR**

*Eloy Borgas Iglesias*  
• Sukalde muntatzailea  
• Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaeta  
Tfno-Faxa: 79 02 51

**INDUSTRIALDEA  
MEDIKU-ZENTROA**

Luis Orriño  
Medikua  
Zarara  
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea  
Pabelloi F-O b  
79 06 82  
ARETXABAETA

**EXPRESS  
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAETA



Basabe Poligonoa A-15  
79 34 28  
ARETXABAETA

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



# INAUGURAZIO KANPAINA HAUNDIA



bihurgarriak





metalezko egitura



bihurgarriak




Azala kentzekoak



ohre sofak



bihurgarriak



erlajatzeko siloi elektrikoak



txokoaracak



courtsane



microvin






larruzko sofak



alcantara



txokoaracak



Prezio freskagarrienak zuretzat



grupo

Amuebladora Mondragonesa

Zigarraia, 1

Centro Hogar Muebles-en ondoan  
Tfnos.: 771492 • ARRASATE